

Adur Alberdi, espetxeratutako Egoiren anaia, 20 urte

Egoi oso ondo dago, oso pozik jendearen erantzunagatik. Lasai dago gutxienez. Zaballan dago. Berarekin hitz egin eta gero hobeto nago. Lehen ere kartzelan egon zen, ez zuen tratu ona jaso eta kezkatuta nengoen.

Aske Gunean, ertzainak etorri zirenean pixka bat urduri jarri nintzen, baina ingurukoek lasaitu ninduten. Hainbeste jende ikusita, pozik nengoen, baina minduta, kolpeak jaso nituen eta mina dut oraindik. Auzipetuengandik zenbat eta hurbilago, orduan eta urduriago nengoen eta poliziek indarkeria gehiago erabiltzen zuten. Atera ondoren inpotentzia sentitu nuen gehiago ez egiteagatik. Sekulako inpotentzia. Jendea oraindik barruan zen eta Polizia joka ari zen. Herritarrak zorabiatuta ikusten nituen, kolpe askorekin. Niri aurpegian eta lepoan eman zidaten min; bizkarrez nengoenez, aurpegian zentratu ziren. Begia eta sudurra more eduki ditut, markatuta, baina ja hobeto ditut. Hankak askatzen ez nituenez, lepoa estutu zidaten eta itolarria izan nuen une batzuetan. Ingurukoen laguntzaz, askatzea lortu nuen, baina momentu oso serioak egon ziren.

Jendearen portaera ikusgarria izan zela azpimarratuko nuke. Familia bezala, oso pozik nago. Gainera, Euskal Herri osotik etorri da jendea. Orain, anaia bisitatu noizbehinka, jendea lasaitu ondo daudelako, baina honegatik ez dugu bizitza utzi nahi. Klaseetara joaten segitu eta bizimodu ahalik eta normalena egiten saiatuko naiz.

Arnaitz, Hernaniko sagardotegi bateko langilea

la egunero egon naiz Aske Gunean, baina Ertzaintzak atxilotetak egin zituenekoa nuen lehen gaua. Gertu ikusten genuen mugimendua eta esna egon ginen, mantekin tapatuta, hotza sentitzen genuelako une batzuetan. Nahiago nuen lorik ez egin, kosta egiten zaidalako gero espabilatzea.

Abisua iristean segituan jarri ginen behar zen tokian. Auzipetuen ondoan egon nintzen. Hasieran beldurtu egin nintzen ze mugimendua zegoen ikusita. Gero, jendea banaka ateratzen hasi ziren eta sortu zen giroarekin eta indarrarekin han egon behar genuela sentitu nuen. Beldurra gero eta txikiagoa zen. Auzipetuek transmititzen zuten indarra eta ilusioa. Lasaitasuna transmititzen zuten beren tentsioaren barruan. Elkar lagunduz eta lasaituz nahiko ondo egon ginen. Ez nuke zalantzarik egingo berriz halako ekimen batean parte hartzeko. Beraiak transmititzen zuten indarra gertutik bizitzea oso hunkigarria izan zen. Beren artean ematen zituzten besarkadak. Malkoak ez ziren urruti ibili.

Oraindik burua bertan daukat: ostiralean manifestazioa, larunbatean martxa... Hain gertu ikusten duzu, badakizu eurek non dauden, bideoak ikusten dituzu gorputz arraro samarrarekin. Baina egindakoaz eta eurez harro nago. Mugimendu polit bat sortu da, beste jende bat bildu da, lehen mugitzen ez zena, eta zerbaiteko balioko duen esperantza dut.

Lander Arbelaitzen lanarekin emozionatu egin nintzen. Eman zioten tratua ondoan gure ondoan azaldu zen. Zoriontzeko lana egin du Euskal Herrian bakarrik ez kanpoan ere informazioa zabaltzen saiatu delako. Beste askori ere zorionak eman nahi dizkiet eta barruan daudenei, animoak.

Betaurrekoak erabiltzen ditut, baina gorde egin nituen eta osorik daudenez, auzipetuek ez dute fakturarik ordaindu beharko. Hala esan nien. Tentsioaren barruan gauzak arintzen saiatu ginen halako txantxekin eta uste dut lortu genuela eta nahiko indartsu sartu direla.

Axier Lopez, "Argia"ko kazetaria

Aske Gunearekin izandako lehendabiziko hartu-emana 13an, larunbatean, izan zen. Aske Gunearen inguruan antolatzen ari zena interesgarria zelakoan, "Beranduegi" web telebistarako bideo erreportajea egitea bururatu zitzaidan. Horren bitartez hango 8 auzipetuak ezagutzeko aukera izan nuen eta erakutsi zidaten gizatasunak, Bulebarrean sumatu nuen giro biziak eta jendeak zer edo zer berria egiteko grinak eraman ninduten, atxilotzeko agindua jaso zutenean, asteazkenetik ostiralera bitarteko egun eta gau guztiak Aske Gunean pasatzera, asmo bera zuten beste hamabost bat zumaiarrekin batera. Gaua lotan Bulebarrean eman, goizeko zazpietan esnatu, lanera etorri eta arratsaldean lanetik zuzenean Donostiara buelta egin nuen. Eta egun eta gau horiek, Twitter eta Facebook bidez han gertatzen ari zena kontatzeko baliatu nituen, baita hango antolakuntzari gure laguntza txikia eskaintzeko ere; maila pertsonalean hasieratik ikusi bainuen han gertatzen ari zenak, artean ostiralean gertatuko zena irudikatzen ez bagenuen ere, bide berri bat irekitzeko gaitasuna zuela, baita aztarna luzea uztekoa ere.

Osteguneko gauerdian Ertzaintza estreinako aldiz azaldu zenean bizi izandakoa izan zen esandako horren guztiaren berrespena. Sirena hotsak entzun eta segundo batzuen bueltan nire burua 300 bat lagunekin elkar lotuta ikusi nuenean, hango metro karratu eskasetan sortu zen urduritasun, amorru, beldur eta gehienbat indarrak txundituta utzi ninduen. Orduan garbi ikusi nuen nire lekua harresi horren barnean zegoela eta ez kioskoan kazetarietzako prestatuko zuten konfinamenduan. Halaxe egin nuen ostiralean, goizaldeko seiak aldera 30 furgona Bulebarrera bidean zirela abisatu zigutenean. Erabaki horri esker bertatik bertara ikusi ahal izan nuen klase politikoa gehiengoak aparteko edo eredu garri izendatu duen Ertzaintzaren jokabide horren egiazko aurpegia. Momentuko adrenalina 'txuteak' harresitik nola atera ninduten memoriatik ezabarazi dit. Lepoan jaso nuen ukabildakaren arrastoa, hanka eta besoetako urraduren aztarnak eta ezkerreko besoa bihurritu zidan ertzainaren irribarre txikiaren soinua dira dauzkadan pista bakarrak. Halere, beste 900 bat lagunelotuta eserita eman nuen ordubete eta erdian ikusi nuen komunikabide ofizialek jaso ez duten Ertzaintzaren jokamoldearen alde iluna. Gertutik emandako ukabildakad, erauzitako ile-xerloak, filma yankietan azaltzen diren droga-mafiosoek darabilten hizkera sexista eta bortitza ertzainaren ahotan (erdaraz noski), bereziki emakumei emandako tratua iraingarria, bertatik bertara ikusi genuen Argiako lankide batek jasandako eraso zentsuratzailea...

Eta hauek denak, soilik bertatik bertara, metro gutxitara, ikusi, sentitu eta deskribatu ahal diren kasuak dira. Kazetaritza baldin bada errealtatearen interpretazioa eta zabalpena, gau horretan ehunka gazte eta helduen artean zegoen egia. Ordubete luze nire eskuineko besoari lotuta beldurrez negar batean igaro arren lurretik arrastaka eraman arte eserita iraun zuen neska oiarzuarraren aurpegian zegoen. Lau ertzainaren artean lurretik arrastaka eraman ostean sabelean ukabildakada jaso zuen berrogeitaka urteko auzipetuen amaren armouan atzeman nuen nire ezkerrean metro gutxitara. Metro batera nuen 40 kilo ere pisatuko ez zuen neska gaztearen egundoko indarrean ikusi nuen; bost ertzainaren artean borra, ukabilak eta botak erabilia ere lanak izan zituzten harresitik kanporatzeko eta behin lurrean etzanda zutela, ertzain baten botaren zola aurpegian zuela eta gainerako lauren kolpeak jaso bitartean, neska alboro ertzainaren hankari lotuta jarraitu zuen handik bidal ez zezaten. Edota Iruñeko nire lagun baten kasua ere. Jaso zuen jipoiaren eraginez besoak lekutik aterarazi bazioten ere, inguruetan gazteei babesa eskaintzen jarraitu zuen Ertzaintzak alde egin arte.

Sei gazteak atxilotuta, dozenaka zauritu eta ehunka lagun jipoiuak izanik ere, hiru orduko erresistentziaren ostean bertan zirenen "Gaur guk irabazi dugu" oihua nekez uler daiteke giza-harresiaren barrenetik bizi izandakoa kontuan hartu gabe. Izan ere, bizi gaituen sistemaren krudelkeria ulertzeko osagai guztiak ispilu baten aurrean jartzeko gaitasuna izan du Aske Gunea ekimenak. Baita

kazetariontzako zenbait irakaspen eta kontraesan azaleratu ere.

'Zure argazkiak ez badira behar bezain onak, behar beste hurbildu ez zaren seinale' Roberto Cappa argazkilaria eta kazetariaren esaldiak zentzu osoa hartu zuen otsailaren 19an. Ehunka lagunek bidegabeba den agindu bati men ez egitea erabaki zuten egunean. Desobedientzia.

Haritz

Ostegunean, gaua pasatzen gelditu nintzen kioskoan. Kanpoko lagun batzuek etxerako bidea hartu zuten eta furgoneta pila bat ikusi zituztela abisatu ziguten. Mikroa hartu eta xuabe-xuabe esnatu genuen jendea.

Azpiegitura lan taldean ibili naiz. Ertzainen ingurura gerturatu ginen gure planteamendua zein zen esatera. Lasai-lasai joatea nahi genuela, desobedientzia zibila zela, bortizkeriarako asmorik ez genuela azaltzera. Baina ez ziguten hitz egiten utzi. Udaletxe aldean gelditu ginen eta ahalik eta jende gehienari abisatu genion etortzeko. Sekulako mezu uholdea zabaldu zen. Oiarzun gozotegiaren alboan jende dezente bildu ginen, animo oihauek eginez. Ertzaintzak kordio handi bat zabaldu zuen eta tentsio uneak sortu ziren. Egoera baretzen saiatu ginen.

Sentimenduak lehen egunetik hasi ziren, konplizitatea egon da denen artean, oso argi adierazi da politika egiteagatik kartzelara joatea eta egoera hauek eten behar direla. Sentimendua oso polita da, herri oso baten erantzuna izan da, benetan herri harresi bat eraikitzea lortu da. Oso-oso zabala eta indartsua.

Halere, sentsazioa gazi-gozoa da. Oso latza da kontzientziagatik eta politika egiteagatik gaur egun jendea kartzelara joatea. Horri gehitu behar zaio lagunak garela. Hiru auzokoak dira. Egoera gogorra bada, lagunak izanda are gehiago. Baina ekimenak berak bultzatu gaitu analisi positibo bat egitera. Mugarrria da, lehena eta geroa markatzen dituen. Jende asko inplikatu da eta beraiek oso modu duinean eta indartsu sartu dira, oso-oso eskertuta jendeak eman duen erantzunagatik. Momentu hunkigarri pila izan dira: manifestazioan auzipetu batek egindako deia, edo Martuteneko martxan bisitan egondako senideek oso indartsu eta ondo sartu zirela kontatzea, edo leihotik Ekaitz de Iberoren eskua behintzat ikustea eta indar mezuak transmititzea. Gogorra eta polita.

Ibone

Erdi barrutik gauzak antolatzen ibili naiz, baina justu azterketetan harrapatu nau eta ezin izan dut gehiegi inplikatu. Ahal nuen neurrian egon naiz. Egia da tailerrak, hitzaldiak eta kontzertuak egon direla asko, nik ezin izan ditut gehiegi bizi. Egia da dokumentalen batean edo kontzerturen batean eta oso ondo. Jende asko egon da. Gehien gustatu zaidan gauzetako bat izan da hor zeudela beti fijo batzuk. Baina jende asko-asko egon da, gazteagoa, ezagutzen ez nuena, agian beste egoera batean gerturatuko ez zen jendea. Hori azpimarratzekoa iruditu zait.

Gero, zutabeetan parte hartu dut ahal nuenean. Egia esan, hasiera batean txandak egitea planteatu zen auzo bakoitzetik kupo minimo bat betetzeko, 30 pertsona egoteko. Ni guri tokatzen zitzaigun egunean egon naiz, baina beste egun batzuetan ez da beharrezkoa izan, jendea zegoen soberan, eta hori oso positiboa izan zen.

Sententzia atera zenean Aske Gunea muntatu zen. Gero, justu gure auzoari, Egiari, tokatzen zitzaion goizeko eta gaueko zutabeetan joatea. Zutabeetan joan eta muntatzen ari ginela atxilotze agindua eman zutela esan zuten. Hori nahiko urduri bizi izan nuen, uste nuen ja etorriko zirela eta Ibero nola eraman zuten ikusita, gutxi ginen, goiza zen eta tentsioan egon ginen. Denbora pasatu eta ez ziren etortzen, jendea hasi zen gerturatzen eta momentu horretatik aurrera gero eta jende gehiago erakarri zuen.

Bertan lotara geratzearen planteamendua hasi zen eta lehenengo gauean egon nintzen. Ez zen ezer pasatu. Giroa oso ona, afaria, jendea gitarra jotzen, errespetatzen lo egitearena, egin nuen lo, nahiko ondo. Bigarren gauean furgonetak pare bat aldiz pasatu ziren *amagoa* egiten eta ez nintzen egon, hurrengo egunean azterketa neukan, baina lehenengoan deitu zidaten bazetozela eta jantzi eta ateratzear nengoela, ez, ja joan zirela. Lauretan ja ez zidaten deitu. Ostegunean, azterketa egin, lo egin nuen oso gutxi eta jaitzi nintzenerako ja esan zidaten furgonetak etortzen ari zirela toki guztietatik. Jende pila bat zegoen, konpromiso eguna zen eta gauzak antolatuta genituen ikastetxeekin. Jende gazte-gaztea zegoen. Hor ere tentsioan egon nintzen, pentsatzen nuen etorriko zirela potente eta beldurra ematen zidan, batez ere jende gazte asko zegoelako eta agian ez zutelako guk bezain barneratua zertara zetozen.

Itxaronaldia luzatu eta luzatu egin zen eta egun osoa pasatu genuen. Ondo, baina nekea pilatzen zihoan. Hainbat gau lo gutxi egiten, tentsioarekin. Gaua erdi esna erdi lo igaro nuen. Etorri ziren momentuan, ez dakit nola esan, gogoia nuen, nahi nuen ja izatea, luzatzean gehiago sufritzen ari ginelako. Ez nintzen hain urduri jarri. Momentua pasada bat izan zen. Eraman zituztelako penarekin gelditu ginen, baina ahal zen hobetoen atera zen. Jende pila egon zen.

Beldur nintzen hainbeste jende izanda deskontrolatzeko arriskua egon zitekeelako. Batzuetan burua hotz izatea ez da erraza, baina jendeak oso ondo jokatu zuen. Karporen barruan, atzealdean nengoen ni. Bulebarretik hasi ziren jendea hartzen eta gu ez gintuzten borobilean sartu. Ematen zuen ez genuela gure funtzioa beteketa eta kezkatu egin nintzen. Babesa eman nahi nuen. Bat-batean lau ertzain etorri eta aurrekoarengana jo zuten gogor. Ni ateratzera zetozenean ondokoa jo zuten. Hori asko egiten zuten eta inpresio handia egiten zuen. Mutil bati aurpegian ukabilkada nola ematen zioten ikusteak sekulako amorrua sortu zidan. Beste bati betaurrekoak lurrera bota eta ertzain batek zapaldu egin zituen, nahita. Ni helduta nengoen. Nesken kasuan ilera zihoazen. Lau-bost etorri eta batek hanketatik, besteak burutik, batez ere iletik hartzen ninduten. (...) Hilda utzi nuen gorputza eta altxatzeko agindu zidatenean ezetz erantzun nuenean kolpea eman zidaten kokotsean. Ezpaina hozkatu eta odol pixka bat atera zitzaidan. Batak bestea lagundu genuen. Medikuntza ikasten ari naiz eta eman beharrean izotz bat jaso nuen!, dio umoretsu.

«*¡Qué gorda eres, cómo pesas, deja de comer!*» eta halakoak esaten zizkieten ertzainek neskei. Zenbat eta gertuago auzipetuengandik, orduan eta haserreago ertzainak. Zuzenean sartzen zuten hatza begian, edo ahoa eta estaltzen zituzten arnasarik ez hartzeko.

Gelditzen den sentsazioa nekea da, pena... baina orokorrean, denek komentatzen dute izugarria izan dela. Oso ondo atera dela eta jendeak oso ondo erantzun duela. (...) Erreferente bat izango da. Orain izango diren kasuetan guri tokatuko zaigu mugitzea eta beste lekuetan elkartasuna erakustea. Komunikatiboki garaipen handia izan da. Sare sozialek lan handia egin dute. Guk hor sentitua jendeak ikusi du.

Ez zenuen ondokoa ezagutzen eta lagun bat bezala babesten zenuen. Hori oso polita da. Donostiako noten batez bestekoa jaitziko da! Gau eta egun egon baitira ikasleak, azterketetan egon arren.

Ane (asmatutako izena)

Donostiakoa naiz eta Aske Gunearen lehendabiziko astean ahalik eta denborarik gehien pasatu nuen bertan. Egin beharreko lanak bukatu eta hara jotzen nuen. Asteartean, zutabeen Bulebarrera iritsi ginenean esan ziguten atxilotzeko agindua eman zutela. Lotan geratu nintzen eta, asteazkenean, 11.00etan etxera bueltatu nintzen gau txarra pasatu nuelako. Halere, zer edo zer bazen, deitzeko eskatu nien lagunei. Grosen bizi naiz eta kaleko arropa jantzita sartu nintzen ohera, sekulako lo beharrekin. 20 minutura telefonoak jo eta korrika atera nintzen argazki kamera hartuta, herri harresira sartu ezingo nuenez, behintzat argazkiak ateraz laguntzera. Alarma faltua izan zen eta etxera itzuli nintzen.

Osteguna egun luzea izan zen. Abisuak ematen zituzten furgonetak zetozela esanez eta tentsioan egon ginen egun guztian. Gauerdian, lehenengoetakoa izan nintzen zakua hartu eta lo egiten saiatzen. 04.00etan txanda bat egin nezakeen galdetu zidaten. Esnatu eta azkenean ez zen behar. Orduan konturatu ginen komunikabide dezente zeudela aurreko egunetan egon ez zirenak. Horrek esan nahi zuen ez zela asko falta. Esna egon nintzen itxoiten. 05.30-06.00ak artean etorri ziren.

Korrika lo zakua gorde, motxila izkina batean utzi eta karpa barrurantz abiatu nintzen, erdialdera, auzipetuen ondora. Bi ordu baino gehiago pasatu zituzten guregana iristen, eta heldu zirenerako ikusten zen zakarrago jokatzen zutela. Denbora guztian erabili zuten indarra, baina erdialdean are gehiago. Bi neska ginen eta gure inguruan gehienak mutilak ziren. Ertzainek euren artean hitz egiten zuten norengana joango ziren eta konturatu ginen guregana begiratzen ari zirela.

Lehenengo hanketatik hartu ninduten, ezin zuten eta beste bat etorri zen. Iletik tiraka, bortizki atera ninduten. Oso azkar pasa zen irudia daukat. Momentu batez, lurrean eserita, belaua gainean jarri eta ez zidaten mugitzen uzten. Berriro hanketatik tiratu, zapatila bat bota eta oinutsik nengoela aprobetxatuz hanka zapaldu zidaten. Eskubialdeko ertzainak bi eskuekin aurpegi guztia hartu eta ez zidan arnasa hartzen utzi une batean. Batek besotik eta besteak bizkarretik hartuta Alde Zaharrera bota nindutenean, antsietate krisi txiki bat izan nuen. Inpotentzia sentitzen nuen. Mutilarekin eta lagunekin batu eta elkar lasaitzen saiatu ginen. Aurreko egunean tentsioan egon nintzen, goserik gabe, tripa itxita. Une horretan tentsio guztia elkartu zitzaidan eta zorabiatuta bezala egon nintzen.

Oihuak entzuten genituen eta bagenekien atxilotzen ari zirela. Bulebarrera sartzen utzi zutenean jendea martxa egiten hasi zen. Nik ez nuen batere gogorik etxean lau hormen artean sartzeko eta Alde Zaharrean geratu nintzen lasaitzen, zapatila eta lo zakua topatuta.

Sentimendu gazi-goza daukat oraindik, eraman dituztelako baina Aske Gunean sortu dena ezin delako hitzez esplikatuko. Bi aste ikaragarri izan dira. Astegun batean mila pertsona lotan gelditzea, toki guztietatik etorritakoak, kristorena izan da. Uste dut denbora askoan ez dugula ahaztuko. Urduri eta guzti jartzen naiz gogoratzean. Lotan geratu ginen guztiak sartu ginen harresian, inork ez zuen zalantzarik egin. Komunikazio lan taldekoak soilik geratu ziren kanpoan. Bagenekien askatzeko tiraka hasi beharko zutela. Askatzen gintuztenean ezin genuen itzuli. Pertsona bat bi edo hiru agenteren artean nola eramaten zuten ikusten genuen eta ez genekien nora, ez genekien identifikatzen edo zertan ari ziren. Nik erresistentziarik ez nuen egin eta halere min ematera joan ziren. Bukaeran, oparitxoak ematen zuten, zaintiratua.

Jazint

Ostiral goizean mikrofono hotsak esnatu gintuen, lasai egoteko baina 30 furgona zetozela Bulebarrerantz. Askok bezperako tentsioagatik zapatak jantzita egin genuen lo eta desorientazio puntu batekin apurka-apurka kondentatuen inguruan esertzeari ekin genion. Orduan ohartu ginen goiz hartan historia idaztera gindoazela. Ertzainek harresia inguratzeari ekin zioten, baina ordurako bagenekien nortzuk ziren goiz horretako irabazleak eta nortzuk galtzaileak. Emozio anabasa ordukoa, 11 egunez ereiten joan ginen Aske Gunea unerik alituenean zegoen eta era berean ez zitzaizkion ordu askorik gelditzen; bestalde, egunak tentsioan eman eta gero, poliziak ez gintuen ezustean harrapatu eta harresia ongi osatu ahal izan genuen. Erdian kondentatuak zeuden, inguruan ginenoi animoak eta esker oneko keinuak bidaliz. Zoritxarrez, agurrak ere baziren.

Bi aste oso intentsoak izan dira azkenekoak. Nahi gabe antzekotasunak bilatzen nizkion Izpurako esperientziarekin, baina argi dago, apustuaren parametroak aldatu egin zirela. Ez da izan elkartasun eta salaketa hutserako gune bat. Bertatik pasatu garenok eurak babesteko prest ginen eta hori izan zen ostiraleko argazkia. Oso handia izan da Donostiako Bulebarra territorio libre bilakatzea. Sekula ez ditut horren beste "beltz" ikusi eta, hala ere, megafonodunak bertatik hanka egiteko eta kondentatutako gazteak abandonatzeko gonbita egin zigunean harresitik ez zen arima bat ere mugitu, are gehiago, hitza hartzen zuen bakoitzean txistu, kantu eta oihuekin erantzun zuen harresiak.

Segituan ohartu ginen peloteroak ez zeramatatzatela gainean eta "polizia demokratiko"aren (kontraesanetan kontraesana) itxura eman nahi zutela. Baina ehunka gazteren duintasunak gainezka egin zien eta ez zuten denbora asko behar izan beraien benetako izatea azalazteko. Hori bai, kazetari guztiak beste puntara eraman eta gero.

Edozer egiten zuten harresia osatzen genuenok bertatik kanporatzeko. Sudurra bihurritu, belarritik eta iletik tira, ukabilkadak, hatzak begietan sartu, itotze saiakerak, ostikoak barrabiletan... baina gehien erabili zuten teknika eskumuturra eta lepoak bihurritzea izan zen. Norbaitek betaurrekoak bazituen, hartu eta lurrera botatzen zizkieten, ondoren zapaltzeko. Sekulako amorrua sentitzen duzu horren modu bortitzean, zure auzokide, lagun edo beste herri batetik kondentatuak babestera etorri ziren gazteak jipoituak direla ikustean. Harresiko posizioa galdu gabe inguruko gazteak ertzainen atzaparretatik askatzen saiatzen ginen, baina hauek are modu ankerragoan erantzuten zuten. Ajpagarria da ere oldarraldi honen aurrean gazteek ertzainei umorez botatzen zizkietenak "*que se os hace de noche!*", "*daros prisa que a las ocho tengo que ir a clase!*" "*me podeis traer el desayuno?*".

Nire txanda ere iritsi zen eta ahaleginak ahalegin harresitik kanporatu eta lurrera bota ninduten. Ez dakit zer gertatu zen tarte horretan, baina kolpe dezente jaso nituen, bideoetan ikusi ahal izan dut burua zapaldu eta hatza begian sartu zidatela. Altxatzeko agindu zidaten, baina oraindik indar apur bat gelditzen zitzaidan, eta eskumuturra gehiago bihurritu arren, lurrean etzanda segitu nuen. Gauzak horrela, lau ertzainen artean aireratu ninduten, horietako batek lepotik estu heltzen ninduelarik eta, Kale Nagusiko perimetrora 30 metro eskas bazeuden ere, itota konortea galtzekotan egon nintzen. Hara iristean zaku baten modura bota ninduten, baina berehala modu boluntarioan zebilen erizain batek hartu eta txoko batera eraman ninduen.

Arnasestua baretzen ari zitzaidala ohartu nintzen nire txanda amaitu zela eta dagoeneko ezin nuela ezer gehiago egin. 6 gazteak eramango zituztela! Ondoa harresitik atera berria zuten lagun bat zegoen eserita eta une horretan tentsio guztia gainera erori zitzaigun. Malkoak eta besarkadak, amorrukoak eta etsipenezkoak baziren ere, gure barrenean zerbait berria sentitu genuen. Esperantza sentitu genuen. Goiz horretan epaiketak gelditu genitzakeela sentitu genuen, garaipena ez zegoela horren urrun, herriak baduela botere

nahikoa astakeria guzti hauek eteteko. Planteamendurekin asmatu behar da, besterik ez. Furgonetak joan egin ziren; bulebarrean berriz gauza mordoak gelditu zen: tristura, lo zakuak, mina, zapata galduak, esperantza, harrotasun puntu bat eta gauzak ondo egin diren tentsazioa. Eta garrantzitsuena, ehunka gazte lekukoa hartzeko irrikan.

Unai, 17 urte

Lehen gaua zen. Egun osoan egon nintzen. Lagun batekin joan nintzen; arreba ere han nuen. Eserita ginen eta ertzain guztiak etorri zirenean, hasieran nahiko urduri jarri nintzen. Builaka hasi ginenean ahaztu egiten zitzaidan. Urdurien isilik nengoen momentuetan egoten nitzen, horregatik saiatzen nintzen ahalik eta gutxien isiltzen. Denbora pila egon ginen, tentsioa nabari zen, eta ertzainak auzipetuengandik zenbat eta hurbilago izan, tentsioa are handiagoa zen.

Hartu nindutenean oso arraroa izan zen. Hain azkar pasa zen dena, urduriago nengoen lehen hamar minutuetan hartu nindutenean baino! Nire kezka ez sartzea zen, auzipetuak ez atxilotzeko. Behin hartu nindutela, jo egin ninduten. Bi ertzainen artean hasi ziren eusten eta gero beste bat gehitu zitzaien. Aurpegian atximurka egiten zidaten, ukabilkada bat ere eman zidaten aurpegian eta arrastaka eraman ninduten bost metroan. Buruz behera jarrita, aurpegia lurrairen kontra bultzatuz, galdetu zidaten ea bakarrik altxatuko nintzen. Nik, ezetz, eta jertsetik helduta altxa ninduten, arropak lepotik tiratzen zidala. Besoak behartu ez mugitzeko eta beste jendea zegoen lekura eraman ninduten. Han geratu nintzen.

Harritu egin ninduen jendea ez mugitzeak. Mila pertsonaren artean oso gutxi izan ziren beldurreratik esertzeko prest egon ez zirenak. Laguntza giroak harritu ninduen. Hiru abisu eman zituzten ertzainek auzipetuak ez babesteko eta jendeak txistuka erantzun zien, zirkinik egin gabe. Hori da nire inpresiorik politena.

Dena hustu eta gero, lagun pila etorri ziren eskola eta institutuetatik laguntzera eta protesta egitera. Horrek animatu egiten zaitu borrokatzera. Esperientzia ona izan da niretzat. Gure partetik jarrera ez zen izan ertzainena bezalakoa. Horiek irainka eta probokatzan ibili ziren. Baina inor ez zen euren probokazioetan erori eta hori ere positiboa da.

Leire

Jakinaren gainean nengoen gertatzen ari zenaz. Zortzi gazte kartzelara joatekoak zirenez, Donostian Aske Gunea eraiki zuten, baina bertara ez nintzen gerturatu atxiloteta agindua eman zuten arte. Jendea bertara lotara animatzera deitu zutela irakurri nuen Twitter bidez, eta asteazken gauean lagun batekin adostu nuen bertara joango ginela. Bilbotik Donostiara doan autobusa hartu nuen arratsalde-gaueko 20:30ean, Bulebarrera 22:00ak inguru iritsiko ginelarik. Esterillak eta zakuak jarri, eta lo hartzen saiatu ginen, generaman tentsioak hori zaildu zuelarik. Lo hartu baino lehen lehenengo sirenak jo zuen, ez genekien nola erreazionatu behar genuen. Jendea auzipetuen inguruan esertzera korrika atera zela ikusi genuen, eta zapatak jantzita bertara joan ginen gu ere. Estu-estu heldu genion batak besteari, baita beste aldean genuena ere. Ez genekien zer gertatuko zen eta hangoekin batera oihuka hasi ginen, ertzainaren erreakzioa zein izango ote zen jakin gabe. Alde egin zuten, eta pozaren pozez elkar besarkatu genuen, ezin sinistuta autoetatik jaitsi gabe alde egin izana. Zakuan berriro sartu ginen, oraingoan zapatak jantzita hurrengorako denborarik ez galtzearen. Euri tantek esnatu gintuzten 3:30 aldera, eta Bulebarreko arkupeetara joateko jaiki ala ez pentsatzen ari ginela, berriro ere sirena, ezin sinistu. Korrika oraingoan ere, baina nora jo bagenekielan. Berriro ere alde egin zuten. Hori bai sinesgaitza. Bazirudien bi garaipen genituela gure esku. Oraingoan, esterilla eta lo zaku hartuta arkupeetara joan ginen, euriak bertan jarraitzen baitzuen. 6:45ean iratzargailuak jo zuen, klasera joateko ordua genuen, ni Bilbora eta laguna Irunera.

Bilbon klaseak amaitu eta bertan alokatutako pisura joan nintzen, deskantsatzeko asmo osoarekin. Etxera iritsi orduko, ordea, Twitter irakurtzen hasi eta hamaika furgoi Donostia aldera joaten ikusi zituztela irakurri nuen. Nire burua odolarekin bat berotzen zihonan eta eguerdiko ordu bateko autobusa hartu nuen Donostiara bueltan. Berriro ere Bulebarrean nengoen, eta oraingoan aurkitutako egoera guztiz desberdina zen. Gauean baino jendetza handiagoa, denok karpa azpian sartuta eta jasangaitza zen tentsioa zerabilen aireak. Auzipetuak eta familia elkar agurtzen, malkotan, eguerdi horretan haien bila etorriko zirela uste baikenuen. Ordubetek pasako zen ia, edo hala zirudien, megafonotik mesedez lasaitzeko eskatu ziguten arte, asko ez urruntzeko baina lasai egoteko, indarrak beharko genituela eta honela hauek gastatu besterik ez genuela egingo. Kioskoan mikro irekia jarri zuten, eta bertara kantatzera eta gitarra jotzera animatu zirenek Bulebarri giro lasaigoa ematea lortu zuten. Arratsaldeko zazpiak aldera bertatik alde egin genuen, etxera joan behar baikenuen lo zaku eta esterilla bila, eta beste pixka bat deskantsatzera, gauerako indarrak beharko genituelako.

Bagenekien ostiral goizean agertuko zirela. Izebak (kazetaria) ondo abisatu zigun, eta indarrez beteta gerturatuko ginen berriro ere Aske Gunea ostegun gauean. Nahiko beteta zegoen, beraz esterillak kanpoko aldean utzi behar izan genituen. Ordu bietarako ni lo zerraldo nengoen, bezperan lo gutxiegi eginda, bikoteak gaua Aske Gunean bueltaka igaroko zuelarik. Megafonoak esnatu gintuen goizeko seietan, badatozela eta erresistentzia pasiboa aurkeztu behar genuela, dena jaso eta arkupetan utzi, "Bulebarrean daude!!" eta korrika karpa inguruan esertzera. Ondokoei besotik estu helduta itxarongo genuen zakurren etorrera, karpa berdearen (auzipetuen familien karporen) ondoan. Nahiko kanpoaldean geunden gu, 4. edo 5. lerroan asko jota ere. Eta iritsi ziren, bertan desagatu ziren, baten batek pasarella batean zeudela zirudiela komentatu zuen, denak lerroan bata bestearen atzetik, besteak "Los hombres de Harrelson"-ekin konparatu... umorea behar genuen histeriak jota ez bukatzeko! Gero eta gehiago ziren, inoiz bukatuko ez zen ilara zirudien horrek. Ertzainen despiege horren buru izango zenak hartu zuen megafonoa. Euskaraz bazekien (bakarra izango zen), eta badaezpada ere gatzeleraz errepikatu zuen esan beharrekoa. Ez dakit zer esan zuen, ahoa irekitzen zuen bakoitzean herri harresiak gogor erantzuten baitzuen «Ez dituzue eramango!!», «Euskal gazteria aurrera!!» eta horien moduko oihuekin. Ez genituen haien hitzak entzun nahi, ez zegoen arrazoi nahikoa gu isilaraziko gintuenik. Independentzia oihuekin jarraitu genuen, eta azkenerako "Eusko Gudariak" ere kantatu genuen. Horren ondoren hasiko ziren jendea eramaten. Onerako edo txarrerako, gure partetik hasi ziren jendea banan-banan ateratzen, eta lehenengo 10 minututan gu ere kanpoan izango ginen.

Gure aurrean zeudenak nola ateratzen zituzten begira geratu ginen hasieran, guri zer tokatuko zitzaigun asmatu nahian edo, une batez lelorik oihukatuta gabe. Batzuk lasai atera zituzten, beste batzuk, ordea, erresistentzia handiago bat jartzen zuten, indar handiagotzatzeraten zituzten, ondo jakinez gorputzeko ze puntutan egin zezaketen min (teknika moduan ikasiak edo): masailezur azpitik heldu, baten bat sudurretik gogor, beste bati orkatila hartu eta zeharo okertu... ikustearrekin soilik sufritu nuen. Orduan berriro ere hasiko ginen lelopean garrasika, batzuen bortizkeria salatzeko alde batetik eta bestetik auzipetuen aldeko 'kantiko'ak, haiengatik baikuendean bertan. Norbait fitxatu eta bi ertzaina eskatzen zituen zipaioen burua zirudienak, "¿Me acompañas?" galdetu berak eta besotik hiltzen hasten ziren beste biak. Gure aurrean zeuden lau edo bostak kendu zituztenean, banekien nire txanda zela neska bakarra bainintzen hurrengo lerroan: niri ere masailezurretik heldu, eta lehenengo tiroian lortu ez, baina bigarrenean jada zutitu ninduten. Biren artean eraman ninduten Kale Nagusira, batek eskumuturra okertuta heldu eta besteak beste besotik helduta ninderamaten, ihes egingo nuelakoan edo.

Parean nuen ertzainen harrisia zeharkatu, eta lehenago eramandakoekin topatzen nintzen. Behin askatuta negargura sartu zitzaidan, inpotentzia edota tentsioagatik. Nire atzetik etorri ziren neskek ere beren lagunekin batzean negarrez besarkatzen zuten elkar, momentu

nahasiak izan ziren. Burua pixka bat zentratzean, nire mutila ekarri zuten, eta biok beste lagun batzuekin egin genuen bat. Kale Nagusiaren sarreran egon ginen luze, jendea nola ekartzen zuten ikusten, baina ia ikusi ezinik Aske Gunean gertatzen ari zena. Batzuk arrastaka zekartzaten, beste batzuk iletik ondo helduta, asko bultzaka uzten zituzten gure artean, eta besteren batek kolpe gutxi jaso bazituen, propinaz baten bat irabazten zuen despedidan. Batzuk odolatan zetozen, beste batzuek izotza eskatzen zuten txorkatila, belau edo eskumutur okertuak baretzeko. Etxe bateko lehenengo pisura ur botila hutsak bota zituzten, eta bertako andreak botila urez beteta itzultzen zuten. Bien bitartean oihuka jarraitzen genuen, Aske Gunean jarraitzen zutenen leloei indarra emanaz kanpotik ere. Luze egon ginen bertan, baina zer edo zer gehiago ikusi nahian, udaletxe aldera joan ginen atzeko kaleetatik. Bertan ere ertzainak zeuden, eta furgoiaren bat parean, begiek ikus zezaketena oztokatzen. Txikia naiz eta bertatik ere gauza gutxi ikusi nezakeen, baina ingurukoek oihuka zirauten bitartean nik ere ahala egin nuen, banekien bertan ezer onik gertatzen ez zela eta. Anaia barruan zegoela jakinda, pixka bat larrituta ere banengoan, bertatik ateratzen ikusi ez bainuen. Lorategietako zuhaitz batera igota ikusi nuen geroago, begi azpian zauri bat zuelarrik. Bi ukabilkada eman omen zizkieten ertzainari erantzuteagatik. Beranduago beste lagun bat topatu nuen, honek ere begi ingurua gorrituta, ea eman zioten galdetu eta "*Pues sí, como a todos*" erantzun zidan. Bazirudien polizia barrura sartu ahala berotzen zihoala... Hortik gutxira hasi ziren auzipetuak ateratzen, kanpotik haien izenak oihukatu genituen, gure elkartasan osoa helarazi nahi genien.

Atxilotuen furgoiak ateratzen hasi zirenean, jendeak Alderdi Edererantz jo zuen, bertan eserialdi bat egiteko edo. Gu iritsi ginenerako, ertzaina eta gazteria parez pare zeuden, bi fronte guztiz aurkako ikusten ziren aurrean. Gure frontera sartu ginen, eta ertzaina atzeraka zihonan pixkanaka pixkanaka, Bulebarrera bueltan. Gu aurrean gintuzten, oihuka. Haiek uzkuratzen ari zirela zirudien, eta gu, ordea, hazten, hedatzen, sentsazio gogor eta on hori dut buruan. Bulebarrean sartu zirenean, berriro ere itzuli ginen udaletxe aldera, bertatik gure oihu eta leloekin jarraitzeko. Alde egin zutenerako goizeko hamarrek inguru izango ziren, eta Bulebarrera sartu ginen denok, norik bere gauzak jasotzera. Amaitua zen, eta irabazi genuela esan bazuten ere, sentsazioa ez zen hori: eraman egin zituzten, politika egiteagatik 6 urteko kartzela zigorra betetzera kondenatutako 8 gazteetatik 6 eraman zituzten. Ez da irabaztea, partidak dirauen bitartean borrokatzea da, eta honela hasten bada irabazten ere, gazte zein heldu zigorturik ez dagoenean irabaziko da. Komentatu beharra daukat ere batere sentsazio onik utzi ez zidan ekitza bat: Aske Gunean zer gertatzen zen jakin nahi genuelarik udaletxean geunden bitartean, ertzainei "Iñigo Cabacas gogoan zaitugu" eta "*Vosotros matasteis a Iñigo Cabacas*" gogor eta ozen oihukatu genuen bitartean, parean nituen bietako batek ere ez zuen begirada jaitsi sikiera. Ezin ondorio onik atera.

Oihane

Nik ostegun gaua Aske Gunean pasatu nuen. Eta esan beharra dut, asteazken gaueko abisuen berri jaso nuenetik oso-oso urduri pasa nuela asteazken osoa, eta ostegun gaua Bulebarrean igarotzea erabaki nuen.

Harresian bizi izandakoa oso esperientzia berezia izan zen. Gertatu baino lehenago, ez nekien nola erreakzionatuko nuen; agian baxoia emango zidan, edo negarrez hasiko nintzen edo indarra aterako nuen. Eta bai, nuen indar guztia atera nuen barrutik. Izugarria izan zen bertan zegoen giroa; tentsioa baina gogoa, indarra, elkartasuna.

Harresian bertan, beldurrik batere ez, gorrotoa eta inpotentzia sentitu nituen; bereziki, zipaioek nire aurrean zegoen mutil bat lurraen kontra etzan eta bortizki ahoa eta sudurra estaltzen zizkietela ikusi nuenean. Oihuka, negar batean hasi nintzen. Ez dut sekula eszena hori ahaztuko.

Ni hanka batetik tiraka atera ninduten eta Harresitik Alde Zaharreko Kale Nagusira bi zipaioren artean eraman ninduten (guztiok bezala). Ongi oroitzen ez naizen arren, nik oihu egiten nien, esanez "hau desobedientzia pasiboa da!" eta horrelakoak, ikusi nuen bortizkeria hori salatzen edo... Eta ezkerrean nuen zipaioak etengabe esaten zidan: "*tranquila, que te tranquilices*" eta eskuinekoak berriz, "*que te calles!*", eta bizkarraren kontra nuen eskumuturra gehiago tolestean zidan.

Zipaioek Kale Nagusira bultzatu nindutenean, oso sentsazio arraroa nuen; norbait ezaguna bilatzeko eta besarkada bat emateko beharra. Berehala aurkitu nituen lagunak.

Eskua handituta nuela konturatu nintzen eta osasun-brigadakoez izotza eman zidaten; berehala lasaitu zitzaizkidan handitasuna.

Ostiralean ezin izan nuen bazkaldu ere egin; oraindik dardarka nengoen, urduri. Eta era berean oso harro. Harro, Donostiako gazteak babestuz herri harresiaren parte izan nintzelako.

Ainhitze

Ni harresiaren izkina batean nengoen, karpa berdea zegoen aldean. Guregana zazpiak aldera iritsi ziren ertzainak. Nire aurrean eserita zegoen neska eusten ari nintzela, ertzain bat etorri eskuko hatz potolotik heldu eta atzerantz okertu zidan "krak" entzun zen arte. Neska hau eraman ondoren nire txanda iritsi zen. Gorputza "hilda" utzi nuen eta arrastaka atera ninduten. Lurrean buruz behera etzan eta eskubiko eskua atzean heldu zidan ertzain batek. Beste batek burua lurraen kontra jarri zidan esku batez eta beste eskuaz ezkerreko eskuko hatzak bilatzen zizkidan. Ukabila itxia nuela ikustean eskumuturra okertzen hasi zitzaizkidan. Bitartean oihuka hitz egiten zidaten: "*tonta, dejate llevar, que si te dejas esto va a ser mas facil para todos*". Lurretik altxa ninduten eta mugitzen hasi ziren. Nik hankak mugitu ez nituen bezala erori nintzen. Orduan eskubiko eskua eusten zidan ertzainak gogorrago heldu ninduen eta ukalondotik gorantz tiraka hasi zen. Beste ertzaina iletik tiraka hasi zitzaizkidan altxatu nahian, beti ere ezkerreko eskumuturra estutzeaz iritsi gabe, oraingoan ere oihuka: "*Levántate zorra, levántate que si no te vamos a pegar*", "*Hija de puta, si no vas por tu propio pie esto va a ser peor*"... Orduan altxatzea erabaki nuen. Bi ertzainak gehiago estutzen hasi zitzaizkidan eta minaren minez negarrez eta oihuka hasi nintzen. Kalera lehenbailehen atera nahi nuen, pausoa azkartzen saiatu nintzen, baina ez zidaten uzten. Oihuka jarraitu nuen ertzainetako batek "*callate zorra*" esan eta eskuarekin ahoa itxi zidan arte. Kale Nagusira iritsi nintzen eta jendearengana bultzatu ninduten. Mutil baten besoetan erori nintzen eta goragalea sentitu nuen. Minutu erdiz mugitu ezinik egon nintzen makurtuta. Tendoian luxazioa daukat eta artikulazioa ukituta.

Unai

23 urteko donostiar gazte bat naiz. Donostiako Bulebarrean gertaturikoa gertu-gertutik bizi izan nuen; hau da, irau duen bi aste horiek bertan igaro ditut.

Segiko kide izateagatik Donostiako gazte kondenatuak ezagutzen ditut, gertuko lagunak dira hain zuzen ere. Egia esan, denbora dezente generaman kondena itxaroten eta egunen batean atxilotetak gertatu behar zirela oso argi geneukan.

Azalpen txiki hau eman ondoren, bi aste hauetan zentratu nahiko nuke.

Egia esan behar badut, hasiera batean ez nuen uste honelako ekimen batek hartu zuen maila har zezakeenik. Dakigunez, herri askotan honelako egoerak antzeman ditzakegu, baina, arrazoi ezberdinen ondorioz, gazte kondenatuekiko izandako elkartasuna aspaldi ez nuela honela ikusten.

Lehenengo astea nahiko lasaia izan zen, nahiz eta argi geneukan edozein momentuan atxilotze agindua atera zitekeela. Horretarako herri harresi hori eraikitze bidean jendea kontzientziatu behar zela antzeman nuen.

Lehenengo astetik donostiarrek oso argi geneukan zein izan beharko zen injustizia honi aurre egiteko jarrera. Desobedientzian oinarrituta, gizarteak herria defenditzeko bloke bat osatu beharra zuen. Horregatik, lehenengo egunetik azken momentura arte, bloke hori indartzen hasi zen.

Herri harresi hori indartzen ari zela ikusteko, eguna bukatzean auzipetu bakoitzaren etxera laguntzeko buruturiko zutabeetan antzeman zitekeen. Gutxienez 30 pertsonaz osaturiko zutabeak izaten ziren etxera laguntzeko.

Astean zehar eta asteburuetan gehienbat, jende asko bertaratu zen Aske Gunera auzipetuei elkartasuna helarazteko asmoarekin. Ekimena oso ondo ateratzen ari zela ohartu nintzen, gehienbat komunikatiboki oso lan txukuna egiten ari baitzen. Komunikazio talde horrek oso erantzukizun handia eduki du, Aske Gunean bi aste hauetan gertaturikoak honelako eragina izan dezan.

Lehenengo astea beraz, oso txukuna atera zen eta bigarrena ere honelakoa izan zen. Gure egunerokotasuneko gauza asko alde batera utzi genituen auzipetuei babes hori adierazteko. Honen erakusle ikasketak izango lirateke.

Bi aste igaro ditut klasera joan gabe, baina ez naiz damutzen. Herri honen etorkizuna bi aste hauetan Donostiako Bulebarrean zentratutik zegoen, nire ikasketetan baino.

Hala ere, noizbehinka klasera joan beharko nintzateke eta horregatik bigarren asteko astelehenean (apirilak 15) klasera joateko prest nengoenean, mezu batekin berri txarra jaso nuen. Atxilotzeko agindua!

Hori dela-eta, klasera joan ordez Aske Gunera joan nintzen ziztu bizian, ez nekien eta noiz gertatuko ziren atxiloteta horiek.

Albiste horren ondorioz, Aske Gunean zeuden gazte auzipetuek lasaitasuna transmititzen saiatzen ziren, nahiz eta gune guztian tentsioa nabaritu. Gainera, notizia horrekin hasi zen Ertzaintzaren eguneroko 'akoso' hori.

Komunikazio taldearen lanaren ondorioz, jendea hurbiltzen hasi zen, injustizia honen aurrean erantzun bat emateko nahiarekin. 24 ordu Gunean igaro nituen, nahiz eta gauean momentu batzuetan lo egitera joan.

Honela igaro genituen egun horiek, egun guztian zehar Ertzaintzaren furgonetak bueltaka ari ziren bitartean.

Azkenik, iritsi behar zen eguna iritsi eta herri batek duen indarraren isla ikusi nuen herri harresi horretan.

Eraman zituzten bai, baina irabazi genuen sentsazioa genuen denok.

Ioritz

Etorkizunean jende gehiena azken egunaz (ostiral goiza) gogoratuko den arren, nire ustez, ia bi astetako egitasmo osoa izan da garrantzitsua. Harrigarria izan da jende guztiaren inplikazioa. Epaia atera aurretik planteamendua gutxi gorabehera zein izango zen zabaltzen aritu ziren auzipetuek, eta ez dut uste inondik inora halako erantzuna espero zutenik.

Auzipetuetako bat (nahiz eta gero absolutua izan) gertuko laguna izanik, gure ingurukook lehen momentutik hartu genuen konpromisoa. Lanetik edo beste betebeharetatik atera eta libre genuen momentu oro Aske Gunean ematen genuen. Gertuko erantzun hori ulertzekoa zen arren, harritu egin ginen egun horietan zehar "bistaz" ezagutzen genuen jende batek erakutsitako jarrera parte hartzaileaz. Deigarriena, hala ere, goizetako eta arratsaldetako zutabeen kontua izan zen. Goizeko 8:30ean, egunero 50 pertsonatik gora ateratzea Groseko zutabeen sinestezina zen guretzako. Eta arratsaldekoetan 200dik gora itzultzen ginen!!

Eta ez dakit zehazki ze taberna eta norbanakok eman zuten janari, edari eta laguntza guzti hori, baina benetan eskertzekoa iruditzen zait.

Hunkigarria zen Aske Gunean zigortuekin egotea, baina egunak aurrera joan hala, nabaritzen zen beraiek ere nekatzen ari zirela. Gauak han pasatzea ere izugarria zen. Ertzainek bigarren gauean egindako bi saiakeretan jendeak erakutsitako jarrera izugarria izan zen. Sirena hotsa entzun eta 30 segundotan han ginen denak elkar lotuta, zigortuak babestuz. Zein baino zein urduriago, eta tentsio eta emozioari ezin eutsiz dardarka.

Ostegunetik ostiralerako gaua esna ematea tokatu zitzaigun, Aske Gunearen zaintza egitea egokitu zitzaigulako. Harritu egin ginen zegoen isiltasunaz. Jende dexente esna bazegoen ere, errespetuz baxu hitz egiten zuten, lo zeuden ia mila pertsonak ez esnatzeko. Seiak aldera eman zuten ertzainak Donostiara hurbiltzen ari ziren abisua. Jendea ahalik eta "goxoen" esnatu zuten megafoniatik (sirena jo gabe!) eta prestatzen hasi zen herri harresia. Jendearen tentsio eta emozio aurpegiak deskribaezinak dira, denok genuen adrenalina topera. Guri kanpotik bizitzea tokatu zitzaigun. Bulebarrean zutik ginen ertzainek ejerzitua iritsi zenean. Sekula ikusi gabeko ertzain kopurua! Gainera, desfile militar moduko batean sartu ziren: lehendabizi, ilara luze bat eta posizioak hartu; gero, beste ilara luze bat eta honen aurrean jarri... Nahiz eta bagenekien ertzain askok etorri beharko zutelara, harrituta geunden despiegearekin. Ertzainekin pixka bat eztabaidatu ostean, Bulebarretik bota eta San Jeronimo kale ertzerraino joan behar izan genuen. Bertan ikusi genuen nola ari ziren herri harresiko kideak "askatzen". Erabiltzen ari ziren bortizkeria ikusita, amorrus oihuka eman genuen denbora luzea eta bertan genituen ertzainak interpelatuz, tentsio uneak sortzen zirelarik. Minutu gutxiren buruan eta jendea kameraz grabatzen ari zela ikusita, beraien furgona bat jarri ziguten parean ikusteko aukera oro oztopatuz. Orduan udaletxe albora joan ginen. Hara iristen ziren harresitik ateratako gehienak. Beraien aurpegiatan antzeman zitekeen amorrua, inpotentzia eta egindakoaz harro egotea. Hunkigarria zen jendea begietan malkoak zituela iristen ikustea. Besarkada bat eta animoak eman eta berriro oihu egiten jarraitzen genuen. Oso luzea izan zen guztia. Udaletxe ertzetik ere jendea animatzen jarraitu genuen eta ertzainei beren basakeria aurpegiatzen. Hor ere tentsio uneak izan ziren.

Gero Hernani kalean eta Hezkuntza Ordezkaritzaren inguruan, atxilotuen furgonetetara hurbiltzea lortu genuen, eta beraiei animo oihukak botatzea ere bai.

Lagunak atxilotu bazizkiguten ere, barnean garaipen txiki baten irudipena genuen.

Egun historiko batzuk bizi izanaren sentsazioa izan dugu, baina nik uste hemendik urte batzuetara izango garelara Aske Gunean bizi izandakoaz kontziente benetan.

Beñat

Ostegun arratsaldean iritsi ginen bertara, 16:00ak aldera, 30 furgoneta Antiguan zeudela esaten zuen zurrumurrua zabaldu ondoren. Tentsio handia zegoen, baina orduak aurrera egin ahala jendetza bildu eta egoera baretzen joan zen.

Iluntzean gero eta kazetari gehiago biltzen joan ziren, Espainiako agentzia eta komunikabide ezberdinetako profesionalak, eta erraza zen gau horretan sartuko zirela aurreikustea. Orduak aurrera egin zuten, han eta hemen solasaldiak, jendea lotan, lasaitasuna. 05:30ean berriro ere zurrumurrua zabaldu zen arte... eta Aritzetan zeudela konfirmatu zen.

Dena nahiko ordenatua izan zen eta gu karpa barruan lotu ginen. Ez genuen apenas lekurik mugitzeko eta zain, tinko eta irmo geunden. Ehunka ertzain azaldu ziren eta inguratu gintuzten. Jendea ateratzen hasi ziren, gero eta modu bortitzagoan. Azkenik, zigortutako sei gazteak eraman zituzten.

Orduan Urko Aiartzaren irizpidei jarraiki, gure kaleratzea izan zen. Oraindik ere jarrera oso bortitza mantendu zuten ertzainek. Ni eraman nindutenean beste 100 bat lagun geratuko ziren karpa azpian, ez nago guztiz ziur. Ertzain bat gertutatu eta altxatzeko esan zidan, ezetz erantzun nion pasiboki erresistitutako nintzela. Bizpairu metro mugiarazi ninduen lurrian, besotik heltzen ninduen. Egia esan, ez zuen oso bortizki egin, bigarren ertzain bat azaldu zen arte.

Bigarren honek bortizki altxatu eta heldu ninduen. Lasai egoteko esan nion eta orduan eskutik heldu ninduen. Besteak ezkerreko besoa atzean jarri zidan, baina honek oso bortizki heldu ninduen eskumuturretik. Gero eta bortitzago. "*Me vas a romper la muñeca*" esan nion, bere erantzuna gehiago estutu eta "*¿quieres que te la rompa?*" bitan esatea. Oso bortizki, gero eta min handiagoa egiten zidan eta "*de puntillas*" esan zidan, "*cállate*", "*no seas listo*" edo "*hijo de puta*" bezalakoak esaten zizkidan. Horrela eraman ninduten karpatik jendearen aurka bultzatu ninduten kalera iritsi arte. Bitartean kamera eta argazkilarien aurretik pasatu ginen.

Askatzean eskumuturra oso handituta neukan. Zorionez, han prest zeuden erizaintzako ikasleek izotza eta nolotil bat eman zidaten. Ogi denda bateko zerbitzariak izotz gehiago eman eta Bilboko norabidea hartu genuen. Ez genuen bertako erietxe batetara joan nahi. Oso handituta nuen anbulategira iristean. Konfiantzazko medikuak atentitu eta zaintiratu bat neukala esan zidan. Besoa edo sorbalda atzera ez botatzean asmatu nuela esan zidan eta eskumuturrean zaintiratu eta *liquido sinovial* delakoaren derrame bat neukala.

Antinflamatorioak eta gel hotza aplikatzeko gomendatu zidan. Zorionez, ferula ez jartzeko erabakia hartu zuen. Eskumuturrak hobera egin du, oraindik mina daukat mugimendu batzuk egiterakoan, zonalde batzuk ukitzerakoan eta pixkat handituta daukat, baina antinflamatorioek eta gel hotzak bere lana egin dute.

Zorionez, azkenean ez da ezer izan. Gau zurraragarria izan zen, emozio eta kontraste handikoa.

Naia, 20 urte

Lehenbizi ertzain bat etorri zitzaidan eta ezkerreko oinetik eutsi zidan. Ezkerretara okertu zidan nahiko fuerte, baina askatzea lortu nuen. Ondoren, bi etorri ziren eta bakoitzak hanka batetik tiraka herri harresitik ateratzea lortu zuten. Jarraian, eskubitan ertzain batek eskumuturretik hartu ninduen eta asko okertu zidan, hurrengo egunetan minez egon nintzen. Eskumuturra okertzeaz gain, besoa atzeraka okertu zidan eta beste eskuarekin moñotik tiraka eraman ninduen burua atzeraka neukala. Ezkerretan nuen ertzainak gauza bera egin zuen, besoa hartu eta atzeraka okertu. Erresistentzia pasiboarekin jarraitu nuen eta ez nintzen zutitu eta erdi belauniko eraman ninduten Kale Nagusiraino, bidean, "*levantate hija de puta*" , "*que te levantes hija de puta*"... eta horrelakoak entzun behar izan nituen. Kale Nagusira iristean bultzada batekin utzi ninduten.

Hurrengo egunetan, gorputz osoko minez egon nintzen orokorrean, baina gehienbat lepoan (iletik tiraka eramateagatik), eskubiko eskumuturrean eta besoetan zehar ubel gorrixkak eta moreak nituen.